



Tokiko errealitate eta beharrianen
Azterketa Diagnostikoa

SAN ESTEBAN

2025eko iraila

Egileak:  **Eikertalde**
 **next**

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
2.	METODOLOGIA ETA LAN-PROZESUA	5
3.	EREMUAREN AURKEZPENA	10
3.1.	Biztanleria eta bizitokia	10
4.	EREMUKO AZTERKETA-DIAGNOSTIKOA	15
4.1.	Ekonomia, enplegua eta establezimenduak	15
4.2.	Etxebizitza	21
4.3.	Ingurumena, hiri-espazioa eta garraioa- mugikortasuna	23
4.4.	Bizitza eta komunitate-bizikidetza	25
4.5.	Gobernantza eta zerbitzuak	30
5.	DATU KUALITATIBOAK	33
5.1.	Elkarrizketa sakonak	33
5.2.	Talde eragileen sorrera	34
5.3.	Talde elkarrizketa	36
5.4.	Tailer irekiak	39
5.5.	Ibilbide gidatuak (Deribak)	41
6.	IRAKURKETA SINTETIKOA ETA ONDORIO NAGUSIAK	47
7.	GAKO ETA LEHENTASUN NAGUSIAK	50
8.	GLOSARIO LABURRA	52

1. SARRERA

Tolosako Udalak abiatutako AuzoEkin estrategiak tokiko-garapen eredu berri baterako oinarriak ezartzea bilatzen du. Tolosako auzoak 8 eremutan sailkatuz, eremu bakoitzeko herritarren inplikazio aktiboa sustatu eta gobernantza-esparru parte-hartzaile berri bat osatzeko bideari ekiten zaio. Tolosako Udalaren eta bizilagunen arteko harremanean sakonduz, plangintza eta erabaki-hartze esparru eta prozesu eraginkorrakoak ahalbidetzea da asmoa, eremu bakoitzaren behar espezifikoak aintzat hartuz. Hortaz, egitasmoak 2 premia nagusiri erantzuna ematea bilatzen du: Tolosako auzoen garapen integrala eta orekatua bultzatzea, eta herritarren erabakigaitasuna areagotzea.

Ibilbide horretan, lehendabiziko eginkizuna eremu bakoitzaren egungo egoeraren azterketa diagnostiko integrala egitea da. Diagnostiko hauek dira, hain zuzen ere, eremu bakoitzeko aurrera begirako bide-orriak (Auzo planak) formulatzeko oinarria. Horrela epe luzerako ikuspegia barneratzen duen gobernantza eredu eta plangintza estrategia errotuak egituratzeko balioa izan beharko luke AuzoEkin proiektuak.

Tolosako Udalak 3 eremu izendatu ditu AuzoEkinen aurreneko esperientzia errealak egituratzeko: Landa auzoak; Bidebieta-Iparragirre-Izaskun; eta San Esteban. Azterketa honek eremu hauetako bakoitzaren analisi xehetua aurkezten du, bakoitzaren testuingurua, bilakaera, egoera eta beharizan nagusienak azalduz.

Azterketa-diagnostiko hau eremu honetako lehentasunak zehaztu eta aurrera begirako garapen estrategiak finkatzeko abiapuntu gisa aurkezten da, ondorengo helburuak bilatuz:

- 1.** Eremuko ezaugarriak eta bilakaera zehaztasunez ezagutzea, demografiari, hiri-espazioari, etxebizitzari, ingurumenari, ekonomiari, enpleguari, bizikidetzari, zerbitzuei, gobernantzari... dagozkion ikuspegiak txertatuz.
- 2.** Oinarri kualitatibo eta kuantitatibo sendoak dituen bermedun azterketa garatzea, datu enpirikoetan eta bizilagunen ahotsen entzute aktiboan oinarritutako informazioa eta ezagutza eskuratuz.
- 3.** Eremuko bizilagunen eta eragile sozioekonomiko esanguratsuenen parte-hartzea ahalbidetu eta inplikazio zuzena sustatu auzogintza aktibatuz.
- 4.** Eremuko zehaztasunak aintzat hartuz, Auzo planen bidez egikaritutako den udalerriko tokiko garapen estrategia orekatua bideratzeko oinarriak jartzea.

Azterketa-diagnostikoa garatzeko, eremuaren analisi sakon eta zorrotza ahalbidetzen duen lan-metodologia erabili da. Ikerketa teknika analitikoen, kualitatiboen eta kuantitatiboen arteko konbinaketa hirukoitzetik egituratu da azterlana. Era horretan, aztergai den eremuaren konplexutasun osoa barneratzeko gaitasuna bermatzen da. Lehendabiziko aurreirakurketa analitikoak eremuko testuingurua kokatu eta haren kasuistiken eta ibilbidearen birpasa egiteko balioa du. Horretarako, Udalak eskainitako informazio dokumentalaren analisisa gauzatu da, bereziki.

Eremuko egungo errealitatearen irudia lortzeko garatutako ikerketa kuantitatiboak bi input nagusi baliatu ditu. Alde batetik, Udalak eskainitako informazio estatistikoaren eta iturri estatistiko ofizialetatik eratorritako informazioaren ustiaketa eta analisisa gauzatu da. Bestetik, eremuko biztanleriaren lagin adierazgarri bat hautatuta, aurrez-aurre garatutako inkestetatik eratorritako informazioaren ustiaketa eta irakurketa analitikoa gauzatu da.

Azkenik, bizilagunen beharrianak ezagutu eta aurrera begirako lehentasunak identifikatzeko garatutako ikerketaren alderdi kualitatiboari dagokionez hainbat izan dira bizilagunen beharrian erabilitako teknikak. Hortaz, eremuko informatzaile klabeekin elkarrizketa sakonak osatu dira, eztabaida saio irekiak garatu dira, aldez aurretik hautatutako bizilagunekin focus talde saioak egin dira, eta bizilagunekin antolatutako ibilaldi gidatuak gauzatu dira.

Azterketa-diagnostikoaren egiturari dagokionez honako sekuentziazioa jarraitzen da: lehendabizi, eremuaren aurkezpen orokorra egiten da. Aurkezpenak eremuaren ezaugarri orokorren azalpena egiten du. Jarraian, eremuko azterketa zehatzaren emaitzak eta irakurketa gurutzatuak plazaratzen dira, biztanleriaren egiturari, ekonomiari eta enpleguari, hiri-espazioari, etxebizitzari, mugikortasunari, bizikidetzari etab. erreparatuz. Ondoren, azterketa-diagnostikoaren ondorioztapen nagusiak adierazten dira sintesi gisa.

Bukatzeko, era orokorrean, AuzoEkinen ondorengo faseari begira, era bateratuan eremu guztietan amankomunean azaldutako elementu nagusiak aintzat hartuz, lehentasunen zehaztapenerako aurreneko gako batzuk irudikatzen dira.

2. METODOLOGIA ETA LAN-PROZESUA

Aurreazterketa analitikoa	Input kuantitatiboak	Input kualitatiboak
☐ AuzoEkinen aurkezpena	☐ Informazio estatistikoa	☐ Talde eragileen sorrera
☐ Material dokumentalak	☐ Inkestatze prozesua	☐ Elkarrizketa sakonak
		☐ Focus taldeak
		☐ Saio irekiak
		☐ Ibilaldi gidatuak

A) Aurreazterketa analitikoa

Aurreazterketari esker proiektuaren testuingurua kokatu da. Tolosako dinamika orokorra birpasatu eta eremuko bilakaera ezagutu da. Udalerrri mailako eta eremuari era espezifikoan eragiten dioten lanketak gainbegiratu dira eta eremuaren ibilbidea arakatu da. Hurbilketa honen bitartez lan-planteamenduaren eta -prozeduraren nondik norakoak aditzera eman eta egokitu dira.

AuzoEkinen aurkezpen saioak

Prozedura:	Banakako aurkezpen saio ireki bana eremu bakoitzean
Helburua:	Bizilagunei dinamikaren berri ematea, egitasmoaren abiapuntua, helburuak, prozedura eta faseak azalduz
Data:	2025eko martxoa

Material dokumentalak

Dokumentuak:	Gai anitzei buruzko txosten teknikoak, diagnostikoak, planak eta parte-hartze prozesuak aztertu dira
Prozedura:	Dokumentuen irakurketa eta edukien analisi inuktiboa gauzatzea
Helburua:	Ondorengo lan-faseetarako oinarritzko elementu aipagarrien identifikazioa eta kategorizazioa

B) Input kuantitatiboak

Lan-sekuentziazioaren bigarren ardatza informazio kuantitatiboaren erabileran datza. Horretarako iturri anitzetatik eratorritako datu kuantitatiboak bildu, tratatu eta ustiatu dira. Informazio kuantitatiboak eskainitako inputak eremuaren egungo egoeraren erretratua egiteko eta honen bilakaeraren jakitun izateko baliatu dira, batik bat. Diagnostikoaren ekarpen kuantitatiboa iturri ofizialetako fitxategi estatistikoak eta inkestatze-prozesu sakon bat erabiliz eman da. Era berean, bide batetik eta bestetik lortutako informazioaren triangulazioa burutu da emaitzen adierazgarritasuna sendotzeko.

Informazio estatistikoa	
Prozedura:	Jatorrizko datuen aurre-sailkapena, batuketa, baheketa, antolaketa, ustiaketa, gurutzaketa eta erlatibizatzea osatu dira kasu guztietan, irakurketa espezifikoak eta integralak ahalbidetzen dituzten emaitzak garatuz
Helburua:	Plano desberdinetan eremuari dagokionez egungo egoera zein den behatzea eta egon daitezkeen erroika nagusienak identifikatzea Udal informazioa Errolda Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, nazionalitatea, jatorria, titulazio maila, emantzipazio maila Helburua: biztanleriaren ezaugarri orokorren azpimarra, eremuen aurreneko erretratu demografikoa lortuz Epeak: 2015 eta 2024ko erroldak Etxebizitza huts potentzialen errolda Aldagaiak: etxebizitza huts potentzialak Helburua: etxebizitza parkearen erabilpenaren hurbilketa, eremuetako etxebizitza huts potentzialak identifikatuz Epeak: 2015 eta 2024ko etxebizitza huts potentzialen erroldak Eustat JEGID (Jarduera Ekonomikoen Gida Zerrenda) Aldagaiak: establezimenduak eta enpleguak Helburua: establezimenduen eta enpleguen begirada, sektoreetako jarduera ekonomikoen arabera Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko JEGIDak Lanbide Eskatzaileak Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, jatorria, titulazio maila, lan-sektorea, langabezia mota eta iraupena eta jasotako laguntzen tipologia Helburua: langabeen ezaugarritzea osatuz eremu bakoitzeko langabeziaren irudi dinamikoa jasotzea Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko eskatzaileen fitxategiak Kontratazioak Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, jatorria, titulazio maila, lan-sektorea, lan-lekua, lan-mota eta lanaldia Helburua: kontratazioen birpasa, eremu bakoitzeko bizilagunen lan-egoera berrien irudi orokorra jasoz Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko kontratazioen fitxategiak

Inkestatze prozesua

Prozedura:	Eremuan aurrez aurre garatutako inkestatze-prozesu konbinatua (galdera itxiak eta iritzi-galdera irekiak), erantzunak tablet elektronikoetan, CAPI (Computer-Assisted Personal Interviewing) sistemaren bidez erregistratuz
Lagina:	Erroldako datuak aintzat hartuz definitutako lagin estatistikoki adierazgarria » 3 eremuen osotasuna: 2.543 biz. / 562 inkesta (3,7% akats maila %95 Konfiantza Mailarako) » San Esteban: 183 biz. / 100 inkesta (6,6% akats maila %95 Konfiantza Mailarako)
Aldagaiak:	Enplegua, ekonomikoa, etxebizitza, ingurumena eta hiri-espazioa, garraioa, bizitza eta komunitatea, gobernantza eta zerbitzuak...
Helburua:	Bizilagunen ikuspegi zuzena jasotzea eremuko egungo baldintza eta egoera islatuz eta aurrera begirako erroka eta beharrian nagusienei buruzko lehendabiziko aztarnak antzemanetz
Data:	2025eko maiatza-ekaina

C) Input kualitatiboak

Informazio kuantitatiboarekin batera informazio kualitatiboak hartzen du lan-prozesuaren zatirik nabarmenena. Input kualitatiboak ezinbestekoak izan dira alde zurretik garatutako analisi kuantitatiboa osatzeko eta fintzeko, eremuaren errealitatearen ikuspegiak txertatuz. Gainera, aurrera begirako plangintza faseetan kontuan izan beharreko premien lehenespena egituratzen hasteko funtsezko elementua bilakatu da. Hainbat izan dira, komunitate-dinamikak gaituz garatu diren parte-hartzean oinarritutako lanketak, hala nola, talde eragileen sorrera saioak, elkarrizketak, saio irekiak, focus taldeak, eta ibilaldi gidatuak. Bide hauetako bakoitzetik lortutako informazioa elkarren artean kontrastatua izan da elementu esanguratsuenak azpimarratuz.

Talde eragileen sorrera: Talde eragileak dira lurralde batean eragina duten edo interesa duten eragile, norbanako edo kolektiboen multzo antolatutak, partaidetza-prozesu batean erabakietan parte hartzeko eta orientatzeko gaitasuna dutenak. Partehartze prozesuetan, talde eragileak funtsezkoak dira hasierako diagnostiko soziala egiteko, norabide estrategikoak markatzeko eta komunitatearen ordezkaritza zabaltzeko (Subirats et al., 2008). Horrelako taldeek auzoko ahots anitzak biltzea bilatzen dute, ikuspegiak aberasteko eta konfiantza soziala eraikitzeko.

Talde eragileen sorrera saioak

Prozedura:	2 orduko iraupeneko lan-saio irekia, proiektua berrazaldu eta espektatibak partekatuz, eta taldearen eraketarako eta eremuaren egungo egoeraren aurreneko hurbilketa jasotzeko lan-dinamika parte-hartzaile espezifikoak gauzatuz
Helburua:	eremuan AuzoEkin dinamika gidatzeko partaideen identifikazioa gauzatzea, talde eragilea eta honen antolaketarako erak finkatuz. Honez gain, eremuko indargune eta mehatxuak identifikatzen hastea
Parte hartzea:	18 bizilagun
Data:	2025eko apirila

Elkarrizketa sakonak: Elkarrizketa sakonak tresna eraldatzaile gisa ulertzen dira ikuspegi kritikotik, komunitatearen ahalduntzea eta botere-harremanen desnaturalizazioa bultzatzeko ahalmena dutelako. Metodo honek aukera ematen du subjektuen ahotsa eta bizipenak lehen planora ekartzeko, egitura sozialek nola eragiten duten azaleratuz eta eraldaketarako gakoak identifikatuz..

Elkarrizketa sakonak

Prozedura:	jarraipen gidoi arinetan oinarritutako 2 elkarrizketa erdiegituratu. Elkarrizketak bakarkakoak izan dira talde eragileak aldeztu aurretik identifikatutako informatzaile klabeekin, profil aniztasuna zainduz
Helburua:	eremuaren bilakaera ezagutu eta egungo egoera eta dinamika propioak era zuzenean identifikatzea erronka nabarmenenak islatuz eta tokiko behar nagusienak azaleratuz
Parte hartzea:	2 saio 2 pertsonekin
Data:	2025eko apirila-ekaina

Focus Group: Focus Group edo eztabaida talde gidatuak teknika kualitatiboak dira, non dinamizatzaile baten laguntzaz pertsona batzuk gai baten inguruko iritzia, bizipen eta proposamenak elkarbanatzen dituzten. Helburua da ikuspegiak kontrastatzea, diskurtsoak azaleratzea eta ezagutza kolektiboa eraikitzea (Morgan, 1998). Eztabaidak ez dira galdeketa soilak, baizik eta elkarrizketa dinamikoak, non parte-hartzaileek elkarri eragiten dioten eta esperientzien arteko loturak sortzen diren.

Focus taldeak

Prozedura:	ordu bete pasatako talde-saioa, lan-prozesua kokatuz, jasotako aurreneko emaitzak partekatuz eta erronka eta gabezia nabariak seinalatzeko eztabaida-dinamika parte-hartzaileak garatuz
Helburua:	AuzoEkinen prozesuaren barnean garatu beharreko saio irekietako osagaiak mahaigaineratu eta ibilaldi gidatuetaarako "puntu beroak" identifikatzeaz gain, helburu nagusia, egunerokotasunean eremuan eragiten duten erronka nagusienak berraztertzea eta plazaratzea da
Parte hartzea:	6 bizilagun
Data:	2025eko ekaina-uztaila

Tailer irekiak: Tailer irekiak parte-hartze zuzenerako espazio ireki eta dinamikoak dira, non herritarrek gai jakin bati buruzko iritzia eta proposamenak modu antolatuan eta kolaboratiboan partekatzen dituzten. Askotan erabiltzen dira diagnostiko partekatutako egiteko edo lehentasunak zehazteko. Paulo Freire-ren pedagogia dialogikoan oinarrituta, tailer hauek herritarren ahalduntzea eta esperientzia partekatua sustatzen dute (Freire, 1970), erabaki-prozesuetan parte hartzeko prestakuntza gisa.

Saio irekiak

Prozedura:	ordu eta erdiko saio irekia, aurreneko informazio eta emaitzen azalpena aurkeztuz, ahulgune eta indarguneak finkatuz eta identifikatutako erronkak berraztertuz, gai-blokeka antolatutako hausnarketa lan-dinamika baten (gallery walk), puntukako leheneste ariketa baten (dot-voting), talde eztabaida kolektibo baten eta adostasunen zehaztapenerako plenario baten bidez.
Helburua:	eremuko erronka nagusien azpimarra egitea, hausnarketa ariketa baten ondoren adostasunetik eraikitako lehentasunak markatzera iristeko
Parte hartzea:	10 bizilagun
Data:	2025eko uztaila

Deribak (ibilaldi gidatuak): Deriba edo ibilaldi gidatua partehartze teknika bat da non herritarrek espazio baten erabilera, oztopoak eta beharrak bertatik bertara aztertzen dituzten. "Ibilaldi-diagnostiko" moduan ezagutzen dira ere, eta espazioaren eguneroko esperientziatik abiatzen dira. Michel de Certearen arabera (1984), "ibiltzea" ez da mugimendu fisiko hutsa, baizik eta espazio publikoaren esanahi soziala eraikitzeko jardura aktiboa da. Deribek bizilagunen begirada aktibatzen dute, arkitekturak eta hirigintzak komunitatean duen eragina ikusaraziz.

Ibilaldi gidatuak

Prozedura:	aldez aurretik prestatutako ibilbide bati jarraiki, gerturatutako bizilagunekin (deialdi irekia) taldekako ibilbideak, partaideek seinalatutako guneetan geldialdiak gauzatu eta garrantziaren arabera sailkatze bisual kolektiboak garatuz (leheneste mapak) eta bukaerako kontraste eta finkapen ariketa amankomuna eginez
Helburua:	norbanakoen ikuspegiak aintzat hartuz, kolektiboki garrantzia duten aspektuen lehenespena gauzatzea eremu bakoitzeko bizi-espazioaren hobekuntzarako osagai nagusiak azalaraziz
Parte hartzea:	14 bizilagun
Data:	2025eko uztaila-iraila

3. EREMUAREN AURKEZPENA

3.1. Biztanleria eta bizitokia

LERROBURUAK	
%5,8	biztanleriaren gorakada azken hamarkadan, egonkortasuna irudikatuz
2,3	pertsona etxebizitza bakoitzeko, bizikidetza-unitate mugatuak islatuz
43	urteko batezbesteko adina
	Sexuen arteko desoreka txikia (%52 emakumeak)
	Gaztetuz doan biztanleria piramidea (biztanleen %26ak 24 urte edo gutxiago)
	Pisu erlatiboa galtzen doazen arren, biztanleen %30ak kanpoko jatorria du (Ukraina nagusituz)
	Biztanleen erdiak oinarrizko edo batxiler mailako ikasketak ditu
	Pertsona bakarreko edo 2 pertsonako bizikidetza-unitateen nagusitasuna (%69)
	Gazteen 2/3 emantzipatuta bizi da

Bi espaziok osatzen dute auzoa, San Estebanek eta San Joan kaleak. Guztira 183 pertsona bizi dira bertan, 81 etxebizitzatan banatuta. Hau da, 2,26 pertsona etxebizitza bakoitzeko. San Estebanen kontzentratzen da biztanleriaren gehiengoa, baina San Joan kaleak etxebizitza bakoitzeko pertsona-ratio handiagoa du: 2,71 vs. 2,16.

Bilakaera demografikoari dagokionez, 10 pertsona gehiago bizi dira auzoan 2015arekin alderatuta (% 5,8ko hazkundea), honela banaketa islatuz: San Joan Kalea 31 bizilagunetik 38ra igaro da (% 22,6ko hazkundea) eta San Esteban auzoa 142tik 145ra (% 2,1eko hazkundea).

Etxebizitza kopurua, pertsona egoiliarrak eta batezbesteko pertsona kopurua etxebizitza bakoitzeko, auzoen arabera (2025)

	Biztanleria	Okupatutako etxebizitzak	Etxebizitza huts potentzialak	Pertsonak, etxebizitza bakoitzeko
SAN ESTEBAN	145	67	34	2,16
SAN JOAN KALEA	38	14	2	2,71
GUZTIRA	183	81	36	2,26

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Oro har, biztanleriaren banaketan desoreka txiki bat irudikatzen da. Auzoan bizi diren pertsonen % 51,9 emakumeak dira eta % 48,1 gizonak: emakumeen presentzia ia ehuneko 4 puntu handiagoa izanik. San Estebanek egitura orekatuagoa du (% 49,0 emakumeak eta % 51,0 gizonak); San Joan kalean, berriz, emakumeen aldeko desoreka metatzen da (% 25etik gorako desberdintasuna).

Pertsonen banaketa ehunekotan, sexuaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Emakumeak	Gizonak
SAN ESTEBAN	49,0	51,0
SAN JOAN KALEA	63,2	36,8
GUZTIRA	51,9	48,1

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Adinen arabera banaketari dagokionez, San Estebaneko biztanleria guztiaren laurden bat baino gehiago 35 eta 54 urte bitarteko tartean dago (% 26,8). Adin talde horretan ematen den kontzentrazio hori bi eremuetan mantentzen da (% 25,5 San Estebanen eta % 31,4 San Joan kalean). Era berean, 15 urtetik beherako pisu erlatiboa (% 16,9), 75 urtetik gorako pisuaren gainetik gailentzen da (12 %).


Pertsonen banaketa ehunekotan, adin-tarteen eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	<=15	16-24	25-34	35-54	55-64	65-74	>=75	Adina, batez beste
SAN ESTEBAN	13,8	11,0	14,5	25,5	13,8	11,7	9,7	42,9
SAN JOAN KALEA	28,9	2,6	0,2	31,4	13,2	2,6	21,1	43,6
GUZTIRA	16,9	9,3	11,5	26,8	13,7	9,8	12,0	43,0

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Banaketa horren arabera, San Estebaneko biztanleriaren batezbesteko adina 43 urtekoa da, ia berdina izanik bi eremuentzat: 42,9 San Estebanen eta 43,6 San Joan kalean. Egungo biztanleriaren banaketa eta 2015ekoa alderatuz gero, ikus daiteke biztanleriaren hazkunde txiki bat ematen dela, bereziki gazteen artean emandako gorakadaren eskutik. Alde horretatik, 24 urtetik beherako adin-taldeek garrantzia areagotu dute (2025ean biztanleria osoaren %26 dira, 2015ean aldiz, %18a ere ez zen iristen kopuru hau). Hartara, adin-piramidearen orekatzerako zantzu batzuk azaltzen dira, piramidearen goiko aldearen estutzearen eta behako aldearen sendotzearen eskutik.

Pertsonen banaketa ehunekotan, adin-tarteen eta auzoen arabera (% Hor.) (2015eko eta 2025eko errolda)



Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

San Estebanen bizi diren atzerriarren kopuruak % 10,4 egin du behera 2015etik, eta egun biztanleriaren % 30 dira. Gehienak, % 19,1, europarrak dira (batik bat ukrainarrak), baina Afrikako pertsonen pisua ere nabarmena da, % 9,3. Adierazgarria atzerriko biztanleak San Estebanen bizi direla, bereziki. San Joan kalean ordea, ez dago apenas atzerriko jatorriko bizilagunik.

Pertsonen banaketa ehunekoetan, jatorriaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Estatua	Europa	Latinoamerika	Afrika
SAN ESTEBAN	62,8	24,1	1,4	11,7
SAN JOAN KALEA	97,4	0,0	2,6	0,0
GUZTIRA	69,9	19,1	1,7	9,3

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Hezkuntza-mailari dagokionean, eremuan bizi den biztanleriaren % 55ak lehen edo bigarren mailako ikasketak ditu: % 33,1ek bigarren mailako ikasketak ditu eta % 22,3k lehen mailakoak. Bestalde, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa % 22,4koa da, eta lanbide heziketa duten pertsonena % 21,4koa. Horrek erakusten du banaketa nahiko orekatuta dagoela eremuan, pertsonen ikasketa-mailari dagokionean.

San Estebanen bizi diren biztanleen ikasketa mailari dagokionez, osatutako mailarik ohikoena batxilergoa da (% 34,5), ondoren, lehen mailako ikasketak datoz (% 29,5). Joera hau orokorra izanagatik, San Joan kalean handiagoa da lehen mailako ikasketak edo baxuagoak dituztenen presentzia (% 38,4).


Pertsonen banaketa ehunekotan, ikasketa-mailaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Lehen mailakoak	Batxilergoa	LH	Goi Mailakoak	Ikasketarik gabe
SAN ESTEBAN	29,3	37,5	20,8	13,3	0
SAN JOAN KALEA	34,6	23,1	15,4	23,1	3,8
GUZTIRA	29,5	34,5	19,9	15,1	0,6

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Azken hamarkadan izandako biztanleriaren hazkunde absolutu txikiak ondorio oso txikiak izan ditu etxebizitza huts potentzialen (38tik 36ra) kopuruaren gainean. Eragin nabariena, etxebizitza bakoitzeko pertsonen ratioa, 2,1etik 2,3ra igarotzea izan da

Eremuan, erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzaren kopurua



Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Familien osaketan ere isla dute aurretik adierazitakoek. Oro har, bizikidetza-unitate txikiak dira nagusi auzoan: etxebizitzaren % 69,1ean pertsona bat eta bi artean bizi dira, % 18,5ean hiru eta lau artean eta beste % 12,4an bost pertsona edo gehiago.

Bizikidetza-unitateen banaketa ehunekotan, pertsona kopuruaren eta gunearen arabera (% hor.)


	Bat-bi	Hiru-lau	Bost edo gehiago
SAN ESTEBAN AUZOA	71,6	14,9	13,5
SAN JOAN KALEA	57,1	35,7	7,2
GUZTIRA	69,1	18,5	12,4

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Bizikidetza-unitateen egituraketan badira aldeak San Esteban eta San Joan kaleen artean. Aurrenekoan, bizilagun 1-2 dituzten etxebizitzaren kopurua %71,6ra iristen den bitartean, San Joanen %57,1a baino ez dira. Bost edo gehiagokoak ere gehiago dira San Estebanen (%13,5), San Joanen (%7,2) baino, non 1-2 seme-alabako familia egituren presentzia nabariagoa izan daitekeen.

Gazteen emantzipazio aukera eta errealtateei begiratuz gero, eremuan bizi diren 18 eta 34 urte arteko 31 pertsonen artean % 66,7a dago emantzipaturik. 30-34 adin-taldekoen artean, pertsonen % 90a emantzipatuta bizi da jada. Era berean, 18-29 adin-taldekoen artean ere pertsonen erdia baino gehiago dago emantzipatuta.

Emantzipazio tasa ehunekotan, adin tarteen arabera (% ber.) (2025)



Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

4. EREMUKO AZTERKETA-DIAGNOSTIKOA


4.1. Ekonomia, enplegua eta establezimenduak

Enplegua

LERROBURUAK	
	Biztanleriaren gehiengoa (% 53,5) aktiboa izan arren, ez-aktiboen pisu nabaria (% 46,5)
	Langabezia tasa esanguratsua (% 12 baino gehiago)
	Langabetuen 1/3 iraupen luzeko langabetuak dira
	Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna (% 71). Emakumeetan (% 88), gizonezkoetan (% 50)
	Landunen % 90 ak enplegu mugagabea dauka
	Udalerria lan-toki nagusi gisa, bereziki emakumeengan
	Kontziliazio neurrien erabilera hedatua (% 54). Bereziki emakumeek baliatzen dituzte


Elkarriketatutakoen % 53,5 biztanleria aktiboa da: % 41,2 okupatuta dago eta % 12,3 langabezian. Biztanleria ez-aktiboa % 46,5era iristen da. Ez-aktiboen taldea erretiratuek (% 44,3) eta 35 urtetik beherako ikasleek (% 48,7) osatzen dute nagusiki (ez-aktiboen %93a)..

Pertsonen banaketa ehunekotan, jarduerarekin duten harremanaren arabera (% ber.)




Langabeen kolektiboaren barnean, % 66k urtebete baino gutxiago darama lanik gabe eta % 34k bi urtetik gora.

Langabeen langabezia-denbora (hilabeteak) (% Ber.)



Biztanleria landunaren (laginaren %41,2) jarduera ekonomikoak aztertuz, zerbitzuen sektorea nagusitzen da batik bat (% 70,8). Ondoren, industria (% 23,4) eta eraikuntza (% 5,8) agertzen dira. Adierazgarria da ez dagoela nekazaritzan jarduten duen pertsonarik San Estebanen. Bestetik aipagarria da sexuaren arabera banaketa nabarmena dela jarduera ekonomikoetako dagokienez: emakumeen % 88,3k zerbitzuen sektorean egiten du lan eta beste % 11,7k industrian. Aldiz, gizonen ia erdiak (% 49,9) zerbitzuen sektorean egiten du lan, % 37,5ek industrian eta % 12,6k eraikuntzan.


Biztanleria okupatuaren banaketa, sexuaren eta jarduera-sektorearen arabera (% Ber.)



San Estebaneko landunen jarduera ekonomikoaren arabera banaketari dagokionez, adar hauetan kontzentratzen da okupatutako biztanleriaren % 68,5a: ostalaritzan eta turismoan (% 28,5), industrian (% 23,4) eta zaintzan eta gizarte-zerbitzuetan (% 16,6).


Landunen jarduera ekonomikoari sexuen arabera bahea pasatuz gero, ondorengo alde nabarmenak antzeman daitezke: emakumeek ostalaritzan eta turismoan (%31,6), zaintzan eta gizarte-zerbitzuetan (% 24,4) eta industrian (% 11,7) egiten dute lan batik bat. Aldiz, gizonak presentzia handiagoa dute industrian (% 37,5), ostalaritzan eta turismoan (% 24,7) eta eraikuntzan (% 12,6)..

Landunen banaketa, jardura-adarraren arabera (% Ber.)




- Biztanleria landunaren enplegatzaile-motei erreparatuz gero ondorengo emaitzak azpimarra daitezke: sektore pribatuaren pisua nabarmena da, okupatutako biztanleria osoaren % 78,4 kontzentratuz. Haren atzetik azaltzen dira sektore publikoa (% 14,9), autoenplegua (% 8,6) eta hirugarren sektorea edo ekonomia soziala (% 2,8).
- Bi sexuen kasuan sektore pribatuak kontzentratzen duen arren okupazioaren zatirik handiena, sektore publikoak pisu handiagoa du emakumeen artean (% 20,6) gizonen artean baino (% 8,1).
- Orokorrean, 10 pertsonatik 9k kontratu mugagabea du, baina badira sexuaren arabera joera bereziak kontratu motetan: gizonen kasuan nabarmenagoa da autoenpleguaren garrantzia (% 8,6) eta emakumeen kasuan, berriz, aldi baterako kontratuen presentzia (% 7,8) azpimarra daiteke.

Landunen banaketa, kontratazio motaren arabera (% Ber.)



- Enpleguaren lurralde-banaketari dagokionez, landunen zati garrantzitsu batek Tolosan bertan egiten du lan (% 44,2). Biztanleria landunaren heren bat pasa (% 35,9) Gipuzkoan ari da lanean, gutxiago izanik Tolosaldeko beste udalerri batzuetan enplegatutakoak (% 16,6). Hemen ere badago sexuen arteko bereizketa. Emakumeen erdiak Tolosan bertan egiten du lan. Gizonezkoen artean, ostera, Gipuzkoako gainontzeko eskualdeak dira lan-leku ohikoena (% 44,8). Gizonezkoek industrian eta emakumeek zerbitzuetan duten presentzia nabarmenagoen ondorio izan daiteke hau.

Biztanleria okupatuaren banaketa, lantokiaren arabera (%Ber.)



- Okupatutako biztanleriaren % 54k adierazi du kontziliazio-neurriren bat erabiltzen duela: % 67,5ek neurri bat, % 19,6k bi neurri, % 6,4k hiru neurri eta % 6,6k lau neurri. Garrantzitsuenak laneko ordutegi malgua (% 31,4), lanaldi murriztua edo egokitua (% 21,6), zaintzarako baimen ordainduak (% 10,9) eta telelana dira (% 5,9), hurrenez hurren. Okupatutako emakumeek gizonek baino lau aldiz baimen ordaindu gehiago eskatzen dituzte zaintza-lanetarako eta gizonek baino bi aldiz gehiagotan egiten dute telelana. Gainera, inkestatutakoen artean, soilik emakumeek eskatu dute lanaldi murriztua edo egokitua

Ekonomia

LERROBURUAK


Gehiengo zabalak ez du hilabete bukaerara iristeko aparteko zailtasunik (bizilagunen **%80ak**)

Diru-sarrera garbien apaltasuna (**%60ak** hilean 1.950 €-tik beherako sarrerak)

Pertsonen **2/5ak** prestazio edo/eta dirulaguntzaren bat jasotzen du, bereziki pentsioak

Bizilagunen % 80 baino gehiagok ez du zailtasunik hilabete amaierara iristeko: % 33,9rentzat erraza da, beste % 53,9rentzat, berriz, nahiko erraza. Aldiz, inkestatuen % 12,1ek dio zailtasun apur batekin (% 8,8) edo askorekin (% 3,3) iristen dela hilabete amaierara.

Hilabete amaierara iristeko gaitasunaren banaketa ehunekotan. (% ber.)




Bizikidetza-unitatearen hilabeteko diru-sarrera garbien banaketak markatzen du egoera hori. Elkarriketatutako pertsonen erdiak baino gehiagok (% 58,9) adierazi du 1.950€-tik beherako diru-sarrera garbiak dituela hilean: % 31,4k 1.184€-tik beherakoak eta % 27,5ek 1.185€ eta 1.949€ artekoak. Tarteko egoeran daudenak, 1.950 € eta 2.749 € bitarteko diru-sarrerekin, % 15,5 dira eta beste % 25,6k 2.750€tik gorako diru-sarrerak ditu.

Hileko diru-sarrera garbien banaketa ehunekotan (% ber.)



Bizilagunen % 43,6k prestazio edo dirulaguntzaren bat jasotzen duela aitortzen du. Prestaziorik edo laguntzarik ohikoena pentsioak dira (% 50,4), baina DSBE edo BGE dirulaguntzek (% 20), zaintza eta gurasotasun dirulaguntzek (% 13,2) eta langabezia-prestazioek (% 6,9) ere bere garrantzia dute.

Pertsonen banaketa jasotako prestazio edo/eta laguntza ekonomikoren arabera (% ber.)



■ Establezimenduak

2015etik 2024ra, enpresa-establezimenduen saldo garbia positiboa izan da, lau enpresa berrirekin. 19 enpresa egotetik 23 egotera igaro da. Eraikuntza eta Zerbitzuen sektoreko establezimenduak dira nagusitzen direnak.

Aldi horretan, % 70,7 egin du gora enpleguak. San Estebaneko enpresek 65 enplegu gehiago sortzen dituzte. 2024an eremuko establezimenduetako enplegatzaile nagusia Ulinox galdaragintza eta muntaketa enpresa zen, 50 langile baino gehiagorekin.

Eremuko establezimenduak eta enpleguak.


2015etik 2024ra bitarteko aldia



DIRAE iturria. Jarduera ekonomikoen direktorioa Eustat.

Jarduera-adarren arabera, establezimendu kopurua honela banatuta dago:

Establezimenduen banaketa jarduera-adarraren arabera 2024an




DIRAE iturria. Jarduera ekonomikoen direktorioa Eustat

4.2. Etxebizitza

LERROBURUAK	
	Biztanleriaren %40ak 5 urte baino gutxiago daramatza eremuan bizitzen
	Bizikidetza-unitateen $\frac{1}{4}$ ak diru-sarreraren herena baino gehiago bideratzen du etxebizitza gastuetara
	Biztanleen ia erdia alokairuan batean bizi da
	Etxebizitzen egoera orokorra ona izan arren, 1/5ak erreforma beharrak ditu


Biztanleriaren % 39,6k inguruk 5 urte baino gutxiago daramatza San Estebanen bizitzen. Biztanleriaren % 14,7k 15 urte baino gehiago daramatza bertan bizitzen. Betidanik bertan bizi izan direnaren kopurua % 21,9koa da. Ostera, % 17ak 2 urte baino gutxiago daramatza egungo etxebizitzan bizitzen. Horrenbestez, auzora orain dela iritsitakoen eta betidanik bertan bizi direnen arteko konbinaketa orekatu bat islatzen dute datuek

Biztanleen banaketa ehunekotan, auzoan bizitzen daramaten denboraren arabera (% ber.)




Nabarmena da etxebizitzari lotutako gastuei (hipoteka, alokairua, gasa, argia, ura eta abar) aurre egiteko, bizikidetza-unitateek bideratzen duten esfortzu ekonomikoa. Kasuen % 25,3ak, diru-sarrera garbien herena baino gehiago bideratzen dute gastu hauetara. Kontrako muturrean, %39,4k diru-sarreraren %20 bideratzen du etxebizitza-gastuetara, zama eramangarri gisa ulertuz.

Bizikidetza-unitateen banaketa ehunekotan, etxebizitzara eta horniduretara bideratutako diru-sarreraren ehunekoaren arabera (% ber.)



San Estebaneko bizilagunen ia erdia (% 46,4) alokairuan bizi da, gutxiago izanik jada ordaindutako edo herentzian edo dohaintzan jasotako etxebizitza baten jabe direnak (% 39,7). Azkenik, pertsonen % 13,9a hipoteka ordaintzen ari da oraindik.

Etxebizitzaren banaketa, edukitze-erregimenaren arabera (% ber.)



Eremuko etxebizitzaren % 77,1 oso egoera onean daude egoiliarren arabera. Etxebizitzaren % 21,2ak eraberritze partzialen bat beharko luke eta % 1,7a goitik beherako erreforma integralaren premian egongo litzateke.


4.3. Ingurumena, hiri-espazioa eta garraioa- mugikortasuna

LERROBURUAK	
	Ingurune eta berdeguneekiko balorazio baikor orokortua (biztanleen % 60a konforme)
	Hiri-espazio osatzen duten elementuekiko ikuspegi ezkorra (biztanleen % 56a atsekabetuta)
	Garraio eta mugikortasunarekiko ikuspegi baikorra (biztanleen % 60a konforme)
	Oinezko desplazamenduen garrantzia nabarmena (lanerako eta ikasteko izan ezik)

San Esteban auzoan bizi direnen % 60a asebeteta edo erabat asebeteta dago ingurunearekin eta inguruko berdeguneekin (lorategiak, zuhaiztiak, plazak eta parkeak, plagen kontrola, hondakinen bilketa, etab.). 1etik 4rako eskalan (1 batere asebeteta ez eta 4 erabat asebeteta), elkarriketatuek alderdi horri eman dioten batezbesteko puntuazioa 2,69koa da. Dena den, bizilagunen %14a ez dago bat ere gustura San Estebaneko ingurune eta berdeguneen egoerarekin.


Auzoko hiri-espazioari dagokionez (jolaserako eta jardueretarako parkeak, espaloiak, irisgarritasuna, oinezkoentzako igarobideak, hiri-altzariak, kaleetako garbitasuna, estolderia, argiztapena, zaratak, etab.) herritarrek duten iritzia negatiboagoa da, batezbesteko puntuazioa 2,35ekoa izanik. Adin-talde bakoitzaren ekarpena aintzat hartuta: hiri espazioarekiko asebeten dauden pertsonak 16 eta 24 urte bitartekoak dira eta kritikoenak 75 urtetik gorakoak. Oro har, nahigabea adierazten dutenen kopurua % 55,8koa da.

Azkenik, elkarriketatuen % 60 baino gehiago asebeteta edo erabat asebeteta dago San Esteban auzoko garraioarekin eta mugikortasunarekin (trafikoa, aparkalekuak, errepideak, bidegorriak, garraio publikoa, konektagarritasuna, etab.) eta 2,65eko batez besteko balorazioa eman diote.



Orokorrean, San Estebaneko bizilagunak oinez mugitzen dira beraien ohiko jarduerak burutzeko garaian. Dena den, jarduera motaren arabera nabarmenak dira aldeak. Hartara, erosketa eta kontsumorako, harreman sozialetarako, aisialdirako, kirolerako eta kulturarako edo osasun-arreta jasotzeko bitarteko nagusia oinez joatea da, (% 75ean gutxienez). Hala ere, lanera/ikastera joateko ibilgailu pribatuak garrantzia esanguratsua bereganatzen du (% 35etik gora). Azpimarratzeko da baita ere, lanera edo ikasketa zentroetara iristeko, garraio publikoa erabiltzen duten pertsonen kopurua (% 20).

Erabilitako garraibide nagusia, egindako jardueren arabera (% hor.)




4.4. Bizitza eta komunitate-bizikidetza

Euskararen erabilera

Inkestatutako pertsonetatik, % 67,6k badaki euskaraz: horietatik % 29,2k esan du euskaraz bizi dela. Kontrara, % 32,4k euskaraz ez dakiela adierazi du. Bi muturretan, pisu argia du hizkuntzak: euskaraz ez dakiten gizonen proportzioa ehuneko 16 puntu handiagoa da emakumeena baino. Aldiz, nagusiki euskaraz bizi diren emakumeen proportzioa gizonena baino ehuneko 17 puntu handiagoa da.

Pertsonen banaketa, sexuaren eta euskararen gaineko ezagutzaren arabera (% ber.)




Osasuna, bizi-ohiturak eta zainketak

LERROBURUAK	
	Bizitzako alderdiei (osasuna, elikadura, ongizate emozionala) buruzko asebetetze maila altua
	Genero arrakala zaintzari lotutako lanei dagokienean, arduren zama emakumeengan geratuz
	Etxeko lanak dedikazio gehieneko esparru gisa

Alderdi pertsonalagoen kasuan (osasun-egoera, elikadura-ohiturak, ongizate emozional eta soziala, bizitzarekiko gogobetetzea), elkarrizketatuen % 80 baino gehiagok erantzun du asebeteta edo guztiz asebeteta dagoela, 3tik gorako batez besteko puntuazioarekin (1etik 4rako eskalan, 1 oso balorazio txarra da eta 4 oso ona).

Bizitzako alderdiei buruzko balorazioa (% Hor.)




Herritarren % 14k esan du osasun-egoera txarrean dagoela eta % 15ek bere ohiko elikadura txarra edo oso txarra dela. % 8,5ek uste du bere ongizate emozionala txarra dela eta % 6ak adierazi du ez dagoela asebeteta bere bizitzarekin. Ez dago alderik emandako balorazioetan, ez sexuaren arabera, ez adin-tarteen arabera. Oro har, biztanleriaren gogobetetze pertsonala ona da baloratutako alderdi guztietan.

Zaintzaren arloan sartuta, elkarriketatutako biztanleria osoaren % 54k esan du denbora gutxi edo oso gutxi ematen duela etxeko zereginetan eta % 35,8k uste du denbora asko edo gehiegi ematen duela lan horietan. Zeregin horiek egiten dituztenen artean, % 7 puntuko aldea dago emakumeen eta gizonen artean, denbora gehiegi ematen dutela aitortzen dutenen artean, emakumeen inplikazioa handiagoa izanik.

Sexuen arteko aldea gainontzeko zaintza ataletan ere agerikoa da. Adingabeen zaintzak San Estebaneko biztanleriaren % 28ri eragiten dio. Gizonezkoen % 20a baino ez da aritzen adingabekoen zaintzan, emakumeen kasuan kopuru hau %36raino igotzen den bitartean. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzari dagokionean, emakumeen %11ak dauka erantzukizun hori, gizonezkoen kasuan horrelako zereginetan aritzen den pertsona bakar bat ere ez dagoen bitartean. Azkenik, adineko pertsonen zaintzan aritzen da biztanleen % 8,1a. Kasu honetan ere, %2 puntuko aldea dago bi sexuen artean, emakumeen ardura handiagoa izanik.

Aurreko zeregin guzti hauetan, emakumeen dedikazioa nabarmenagoa da, gehiago baitira zeregin horietan denbora gehiegi ematen dutela aitortzen duten emakumeak gizonezkoak baino.

Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko jardueretan emandako denbora (% hor.)



Bizikidetza eta komunitatea

LERROBURUAK

Bizilagunen parte-hartze maila eskasa eremuko ekimen kolektiboetan, bereziki emakumeen artean

Auzoarekiko atxikimendu maila nahiko mugatua (erdiak baino ez du aitortzen auzo-izaera handia)


Eremuko giro-sozialaren balorazio baikorra (% **80**arentzat giroa ona edo oso ona)

Erdipurdiko gogobetetze maila auzoaren egoera orokorrarekiko

Eremu horretako biztanleek parte-hartze maila urria erakusten dute auzoko ekimenetan: halako jardueretan parte hartzen dutenen kopurua auzotarren % 15,2ra iristen da. Sexuaren arabera desberdintasuna nabari da, auzoko gizonen 1/5a inplikatzeko baita auzoko zeregin komunitarioetan. Aldiz, emakumeen kasuan 1/10era jaisten da kopuru hau, espazio publikoan emakumeak duen presentzia urriaren adierazle.


Parte-hartze maila baxu honek zerikusia izan dezake, besteak beste, auzoan denbora gutxi daramatenen pisu demografiko esanguratsuekin, edota kanpoko jatorriko bizilagunen garrantziarekin, zeinak baliteke, engaiamendu gutxiago izatea egunerokoan komunitatea eraikitzeke eginkizunetan aktibatzeke.

Elkarteetan eta auzoko ekimenetan parte hartzea ala ez, sexuaren arabera (% Ber.)




Eremuari begira burututako ekimenetan adierazitako parte-hartzea eskasa bada, ez da bereziki hedatua auzoaren parte izatearen sentimendua. Soilik bizilagunen erdiak (% 53,4) adierazten du auzoarekiko atxikimendu maila altua edo erabatekoa duela. Bestalde, auzoan bizi diren pertsonen 1/5ak (%19) auzo identitate txikia duela aitortzen du.

Eremukoa izatearen sentimendua (%Ber.)




Eremuarekiko atxikimendu maila esanguratsua ez bada ere, zeharo baikorra da auzoko giro sozialaren gainean egiten den balorazioa: biztanleen % 78,9k dio giro ona edo oso ona dela, agerian utziz ez dela bizikidetzaz arazo larririk ematen. Dena den, biztanleen 1/5a ez dago konforme auzoko giro sozialarekin, problematika jakinen bat egon daitekeela erakutsiz.

Eremuko giro sozialaren eta bizikidetzaren balorazioa (% Ber.)



Oro har, eremuarekiko gogobetetze maila erdipurdikoa da. Biztanleriaren % 18,8 ez dago konforme auzoaren egoera orokorrarekiko. Aldiz, % 39,7a nahiko edo erabat asebeteta dago. Hartara, erdibideko iritsiak gailentzen dira (%41,5), auzoaren egoerak alde positiboak eta ezkorrak dituela islatuz.

Eremuaren egoera orokorrarekiko gogobetetasuna (% Ber.)



4.5. Gobernantza eta zerbitzuak

LERROBURUAK	
	Oinarrizko zerbitzu eta produktu eskuragarritasunaren balorazio ona, ez ordea ekipamenduena
	Eremuak, adin-talde desberdinetako pertsonentzat eskaintzen dituen aukerekiko asebetetzea
	Muturreko adin-taldeetako kideentzako aukerekiko desadostasun gehiago
	Gobernantzari lotutako adierazleekiko ikuspegi kontrajarriak
	Udal teknikarien, izapidetzak egiteko erraztasunaren eta auzoari emandako arretaren balorazio ona
	Bizilagunekiko komunikazioaren, politikarien lanaren eta iradokizunen erantzunen balorazio ezkorra


Eremuko zerbitzu eta ekipamendu publikoekiko eskuragarritasun eta egoerari lotutako hainbat aldagaiei buruzko iritziaz galdetuta, orokorrean, bizilagunek iritzi nahiko baikorrak adierazten dituzte.

Eremuko ekipamendu kolektiboen —hala nola frontoia, eliza, elkarteak, etab.— egoeraren gaineko balorazioaren kasuan, herritarrek nahigabe oso nabarmena adierazi dute, biztanleen % 57a ez baitago konforme. % 43ak ordea, balorazio baikorra egiten du elementu hauetatik. Orotara, biztanleek 2,4ko batezbesteko puntuazioa eman diote eremuko ekipamendu kolektiboekiko asebetetzeari.

Oinarrizko produktuak eskuratzeko eremuak eskaintzen dituen aukeren gaineko balorazioa baikorra da. Bizilagunen % 84,9ak dio asebeteta dagoela egungo egoerarekin. Orotara, biztanleek 2,9ko batezbesteko puntuazioa eman diote eremuko oinarrizko produktuen eskuragarritasunarekiko asebetetzeari.


Ezinbesteko zerbitzuen eskuragarritasunari dagokionez, biztanleen % 90,8k aitortzen du konforme dagoela. Orotara, biztanleek 3,1ko batezbesteko puntuazioa eman diote eremuko oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasunarekiko asebetetzeari.

Asebetetze-maila eremuak eskaintzen dituen aukerekiko, jardueren arabera (% Ber.)



Eremuak hainbat kolektiborentzat eskaintzen dituzten aukeretan pentsatuta, hala nola adinekoentzat, helduentzat, gazteentzat, adingabeentzat zein haurtxoentzat, balorazio gehienak positiboak dira. Nahiz eta, balorazioak positiboak izan, bereziki muturreko adin-taldeetan (75 urtetik gorakoak, adineko pertsona aktiboak eta haur jaioberriak) ematen da balorazio negatiboen garrantzirik handiena, %45era iristen dena, asko jota.

Eremuak eskaintzen dituen aukerei buruzko gogobetetzearen balorazioa, pertsonen kolektiboen arabera (% Hor.)




Tolosako Udalaren eta eremuaren arteko harremanen balorazioari dagokionez — komunikazioari, kudeaketak bideratzeko erraztasunari eta gai administratiboen tramitazioari, udaleko langileen aldetik jasotako tratuari, lortutako erantzunei edo alkatearen eta beste ordezkari politikoen rolari dagokionez—, herritarrek pertzepzio zatitua dute: gogobetetzea eta nahigabea presente egonik.

Tolosako Udaleko langileek emandako tratua da ondoen baloratzen den alderdia; 2,9ko batezbestekoa 1etik 4rako eskalan. Izan ere, biztanleriaren % 77ak 3tik gorako asebetetze-puntuazioa eman dio. Horrekin batera, izapidetzak eta gestioak egiteko erraztasuna (2,7) eta auzoari eskainitako arreta (2,5) ere nahiko ondo baloratuak izan dira.

Bestalde, asebetetze-mailarik txikiena duten alderdiak, bizilagunekiko komunikazioa, ordezkari politikoei garatutako lana, eta batez ere, kexa, iradokizun eta jakinarazpenei emandako erantzuna (2,3ko batezbesteko balorazioa). Hurrenez hurren, % 15,6ko, % 12,2ko eta % 13,7ko erabateko desadostasun mailak erregistratzen dituzte hiru adierazle hauek.

Eremuko biztanleen gogobetetzea, Tolosako Udalarekin egindako jardueren arabera. (% hor.)



5. DATU KUALITATIBOAK

5.1. Elkarrizketa sakonak

- San Esteban “Auzo Lasaia” gisa deskribatu daiteke (berezko balioa)
- Tolosarekiko hurbiltasuna aldagai inportantea (abantaila eta desabantaila)
- Kanpoko jatorriko pertsonen inklusioa erronka gisa. Ez dago bizikidetza arazorik, baina interakziorik ere ez. Auzotarren arteko kohesioa lantzea funtsezkoa da.
- Auzogintzan erreleboa lantzeko beharra, auzotar berrien inplikazioa sustatuz.
- Auzoko espazio publikoari potentziala ateratzea da gakoa auzo dinamikak sendotzeko. Jendeak espazio hauek (parkea esaterako) bizi eta erabili ditzala (orain parkea meriendak egiteko erabiltzen den bezala, hori zabaltzea).
- Auzo elkarteari, behar bada, ondo etorri ahalko litzaioke auzoa aktibatzeke eta kohesioa lantzeko estrategiak edo tresnak izatea.
- Auzoan diharduten eragileen arteko saretzea eta elkar-lankidetzak sustatzea potentzial bat izan daiteke (Auzo elkarteak, erraldoi eta buruhandien konpartsa, Tolobolei, Boxa, Gure Zirkua, Ataria, Bonberenea). Batzuen arteko elkarlan puntuala baino ez da ematen oraingoz.
- Orokorrean auzoa zainduta egotea da funtsezkoa (gune berdeak, erreka txikia, irisgarritasuna, argiteria, errepideko zuloak, Ferialaren egoera...).
- Garraioari dagokionez, busa
- Bertan behera utzitako eraikinak txukun egotera behartzea jabeen.
- Balizko garapen urbanistikoko proiektuek orekatuak behar dute izan, eta bien bitartean ezinbestekoa da auzoaren mantenuari arreta jartzea, progresiboki hobekuntzak gauzatuz.
- Auzoak utzikeria sentsazioa somatzen du erakundeen aldetik. Etsipena dago.
- Auzo dinamika animatzeko egiten diren ekimenak garatzeko geroz eta eskakizun burokratiko gehiago daude, egitasmoen jarraipena mehatxatuz. Hauek arintzeko bideak bilatzea ondo legoke.
- San Estebaneko elkartearen lokalak erabilera handia du (entseguak, emanaldiak, etab.). Momentua hauek baliatzen dituzte kutxa egiteko. Beste auzo batzuetarako finantzaketa propioa lantzeko adibide izan daiteke.

5.2. Talde eragileen sorrera

Saioa Udal teknikariaren aurkezpenarekin hasi zen. AuzoEkin prozesuaren helburu orokorrak gogorarazi zituen, parte-hartze komunitarioa eta garapen estrategikoa sustatzea helburu. Ondoren, prozesuaren egungo fasea eta hurrengo urratsak azaldu ziren: auzoaren diagnosi partekatu bat osatzea, eta horren oinarrian oinarritutako estrategiak garatzea. Sarrera horren ondoren, dinamizatzailerik saioaren egitura azaldu zuten, eta parte-hartzaileei espazio aktibo bat eskaintzea bilatu zen..

Txekin dinamika: aurkezpena eta espektatibak partekatzea

Dinamika honen bidez, auzotarrek San Esteban auzoari buruzko pertzepzioak eta euren parte-hartzearekiko motibazioak partekatu zituzten. Auzoaren definizioari dagokionez, parte-hartzaileek “toki lasaia”, “gure herri txikia”, “familia giroa”, edo “aislatua baina herritik gertu” gisako iritziak adierazi zituzten. Horrekin batera, auzoko giroa bizipoztat eta lasaitasunez betetzat jo zuten gehienek, nahiz eta arazo puntual batzuk ere aipatu ziren, hala nola iluntasuna edo hiri-garapenaren presioa.

Parte-hartzearen arrazoiak ere jorratu ziren. Auzoari eusteko eta hobetzeko konpromisoa nabarmendu zen, baita urbanistikoki antolatze beharra ere. Beste ikuspegi batzuk ere azaldu ziren: auzoaren esentzia galtzeko beldurra eta “gure lekua” babesteko gogo bizia. Oro har, dinamika honek lotura emozional sakona agerian utzi zuen bizilagunen eta auzoaren artean.

Talde eta eragileen identifikazioa eta sailkapena

Hurrengo dinamikan, parte-hartzaileek San Esteban inguruan ezagunak zituzten talde, eragile eta pertsonak identifikatu zituzten, hiru ehunetan banatuta: soziala eta biztanleria, instituzionala eta ekonomikoa. Ehun sozialari dagokionez, Boxa, Toloboley, Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, Tontor, Ereite, Gimnasia Ritmikoa eta kultura-aniztasuneko kolektiboak aipatu ziren (ukrainarrak, moldabiarrek, marokoarrak...). Ehun instituzionalean, Osasun Mentalaren Zentroa, Osakidetza, Renfe, Udala eta 28 kanala identifikatu ziren, eta ekonomikoan, Hiru-Aldeta, Ataria, Kaldereria, Martin Txiki baserria, El Rincón de San Esteban edo Saneamientos Elo segi bezalako eragileak.

Ondoren, eragile horiek auzoarekiko duten inplikazioaren arabera sailkatu ziren. Inplikazio handiena zutenen artean aipatu ziren Tontor, “Moldabiarrek”, Boxa, Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, Txaranga, Peugeot eta Tapizeria. Inplikazio ertaina zutenen artean, Bombero, ToloBoley, Gure Zirkua eta Ataria (festetan) agertu ziren, besteak beste. Inplikazio txikiagoarekin identifikatutakoak izan ziren, esaterako, Udala, Ferialekua, 28 kanala, Oreka Slackline, Renfe, hainbat etorkin kolektibo eta zerbitzu enpresa txiki batzuk.

■ Indargune eta mehatxuen identifikazioa

Taldeak San Esteban auzoaren indargune eta mehatxu nagusiak aztertu zituen, eta hainbat ideia mahai gainean jarri ziren. Mehatxuen artean nabarmentzekoak dira: biztanleriaren zahartzea, hiri-garapenaren aurrean sortzen den beldurra, auzo elkartean ematen ari den generazio aldaketa, “barrio dormitorio” efektua, ikuspegi politiko ezberdinen arteko elkarlan faltak sortzen duen proiektu komunaren gabezia, eta parte-hartzaileen nekea eta frustrazioa. Bestalde, indargune gisa azpimarratu ziren auzoaren lasaitasuna, parkeak eta aisialdirako espazioak, eta auzotarrek prozesu parte-hartzaileetan duten interesa eta inplikazioa. Berezi nabarmendu zen kanpoko jatorriko biztanleek parte hartzeko duten potentziala, eta horrek aniztasuna eta kohesioa indartzeko aukera eskaintzen duela. Bizilagun batek proposamen zehatz batzuk ere egin zituen, hala nola zuhaitzak landatzea itzal guneak sortzeko, eguzki-panelak jartzea eta garbitasun mezuekin sentsibilizazio-kanpainak egitea.

■ Parte-hartze espazio eta kanalen identifikazioa

Dinamika honetan auzoan parte-hartzea sustatzeko dauden espazioak eta komunikazio kanalak identifikatu ziren. Informazioa zabaltzeko erabiltzen diren kanal nagusiak dira etxe atarietan jartzen diren oharrak, sare sozialen bidez egiten den kudeaketa, eta Hiru-Aldetaren bidezko mezularitza. Parte-hartzeko espazioei dagokionez, Auzo Elkartea, Parkea eta urteko hainbat ekitaldi aipatu ziren: urriaren 12ko festak, urriaren hasierako krosa, San Juan Sua (ekainaren 21ean) eta Garagardo Feria (ekainean). Horiek guztiak parte-hartzea eta harremanak sustatzeko aukera gisa ulertu ziren.

■ Azken hausnarketa

Saioaren amaieran, bizilagunei galdera irekien bidez hausnarketa bat egiteko eskatu zitzaion: zergatik parte hartu nahi duten, zer espero duten prozesu honetatik eta zer ekarpen egin dezaketen. Parte-hartzaileen arabera, San Esteban “gure herri txikia” da eta zaindu beharreko lekua. Auzoaren esentzia mantentzea, askatasuna eta segurtasuna bermatzea eta Ttorre auzoarekin eta gainerako auzoekin lotura sendotzea adierazi ziren helburu nagusien artean. Estrategia garatzeko nahia lotuta zegoen trafikoa murriztearekin, kutsadura saihesteko, behar bereziak kontuan hartzeko eta garapen urbanistiko orekatu batek auzoko argitasuna ez kaltetzeko. Halaber, espazio natural gehiago sortzea eta udalarekin harreman estuagoa izatea aipatu zen. Ekarpen pertsonalak ere proposatu ziren, beste herrialde eta kultura batzuetako bizilagunek parte har dezaten, edo behintzat haien iritzia kontuan hartua izan dadin.

■ Elkarrizketa sakonetarako hautagaiak

Saioa bukatu aurretik, Ikertaldeak burutuko zituen elkarrizketa sakonetarako profil ezberdineko hautagaiak proposatu zituzten parte-hartzaileek.

5.3. Talde elkarrizketa

■ Ingurumena, paisaia, historia eta kultura

San Esteban auzoko parkeak erabilera handia dauka, bai auzotarrek, bai inguruko eskualdeetatik hurbiltzen diren pertsonak. Ikastetxeek ere maiz erabiltzen dute parkea. Hala ere, espazioaren egitura hobetzeko premia nabarmena da: parkeak errepide batek bitan zatituta egoteak arriskua eta zarata eragiten du, batez ere iluntzean. Ume txikientzako jolasik ez dago, eta horrek askoren parte-hartzea mugatzen du. Egun dauden instalazioak —txirrista eta balantzari bakarra— ez dira egokiak adin txikienekoentzat, eta kulunka gehiago jartzeko arazo legalak aipatu dira.

Adinekoentzako prestatutako guneak badauden arren, irisgarritasunak hobekuntza nabarmena behar du, bai bideetan, bai egonlekuetan. Bankuen inguruan egitura estaliak faltan botatzen dira, babes emateko bai eguzkia bai euria dagoenean. Zuhaitz gaixoak moztu izanak itzala gutxitu du, eta nahiz eta argiteria berriak giroa lasaitu eta seguruagoa bihurtu duen, itzalen falta nabarmena da egun.

Auzoan ez da oroimen historikoari buruzko jardura esanguratsurik egiten. Norbaitek argazki zaharrak dituela aipatu zuen, baina ez da ezer garatu horien inguruan. Hala eta guztiz ere, auzokideen artean badago interesa auzoaren historia balioan jartzeko. Gogoan daude, adibidez, auzoko hildakoen omenez landatutako zuhaitzak —lehena suntsitu eta bigarrena jarri zen—, baina oroimen kolektiboaren lanketa planifikaturik ez dago.

■ Mugikortasuna, hirigintza, azpiegiturak eta energia

Auzotarrek kezka agertu dute garapen urbanistikoaren inguruan, batez ere zer eraikiko den ez dagoelako argi. Horrek ziurgabetasuna sortzen du, eta hutsik edo utzita dauden eraikinen egoera ere kezka iturri da. Jabeek eraikin horiek txukun mantentzera behartu beharko lirakekeela uste da, auzoaren irudia eta bizi-kalitatea ez kaltetzeko.

Mugikortasunaren arloan, errepidea oinezkoentzako bihurtzeko proposamena aztertu da, baina trafikoaren handitasuna dela eta, autoentzako alternatibak ez daude garbi, eta horrek ezinegona sortu du. Elosgi kalean eta industriagunean trafikoa handiegia da, eta zaratak goizetik bertatik hasten dira. Karabanen gunea aparkalekutzat erabiltzen da egunero, eta aparkaleku faltak presioa areagotzen du.

Explanada bat, egun aparkaleku gisa erabiltzen dena, parke bihurtzeko proposamena egin zen, espazio zabal eta aproposa delakoan. Bestalde, parkera eta inguruko zenbait gunetara iristea zail egiten da mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, hala nola gurpildun aulkian, haurtxoen kotxearekin edo ibiltzailerekin doazenentzat. Irisgarritasuna, beraz, oraindik landu beharreko arlo nagusietako bat da.

Biztanleria, parte-hartzea eta bizikidetza

San Estebaneko bizilagun askok erakundeen aldetik utzikeria sentsazioa dute. Horrek etsipena eragin du, eta auzoko ekimenak sustatzeko gero eta oztopo burokratiko gehiago izateak zaildu egiten du dinamiken garapena. Horren ondorioz, proiektu askoren jarraipena kolokan dago, eta beharrezkoa ikusten da horiek arintzeko bideak bilatzea.

Auzoaren identitatearen gainbehera ere nabarmendu da. Kanpoko jatorria duten pertsonak ez dute bizikidetza arazorik sortzen, baina ez dago interakzio handirik ere. Kohesio falta sumatzen da, eta horren aurrean, auzo elkarteak kultura aniztasuna bistaratzeko ekimenak antolatzeke interesa azaldu du. Herrialde ezberdinetako jaialdi tematikoak egitea proposatu da, urte osoan zehar, ez soilik data jakin batzuetan. Azken jaietan, esaterako, hondurastar janaria eskaini zen kultura aniztasunaren adierazgarri.

Gaur egun, auzoko eragileen arteko elkarlana mugatua da. Elkarte ezberdinek — erraldoi eta buruhandiak, Tolobolei, Boxa, Gure Zirkua, Ataria, Bonberenea— elkarlan puntualak izan dituzte, baina saretze sakonik ez da garatu. Halaber, ez dago guztientzat erreferentziala den espazio komun fisiko bat. Lokalak irekita badaude ere, jende askok ez du bere sentitzen, eta horrek parte-hartzea zailtzen du. San Juan auzoko esperientziaren arabera, espazio fisiko alternatiboek parte-hartze handiagoa ekarri dute.

Auzotar askok zailtasunak dituzte komunitatearekin konektatzeko, eta batzuek ez dute interesik erakusten parte hartzeko. Era berean, auzoan denbora gehiago daramatenek ere ireki beharra dute eta besteekin konektatzeko ahalegina egin. Antolakuntza lanetan urte asko daramatenek nekea erakusten dute, eta belaunaldi berrien inplikazioa sustatzea funtsezkoa da erreleboa bermatzeko.

Parte-hartzea indartzeko, dinamikak eta jarduera iraunkorrak proposatu dira, inklusibitatea eta komunitatearen sentimendua lantzeko. Haurrentzako gune bat sortzea lokal barruan, familien parte-hartzea errazteko ideia bezala atera da. Horrek belaunaldi arteko bizikidetza ere sustatuko luke. Gastronomia-aniztasuna islatzen duten egun tematikoak edo ipuin kontalari anitzak (hizkuntza eta kultura ezberdinekin) ere proposatu dira.

Kultura ezberdinetako kolektiboekin loturak aktiboki lantzea funtsezkoa da; adibidez, Elena komunitate ukrainarrarekin zubi-lanetan aritu liteke, errusieraz hitz egiten duelako. Parte-hartze aktiboagoa lortzeko, talde guztiek euren burua inplikatu beharra dago, eta aldameneko kolektiboek zuzenean hurbildu gabe egotea hobetu beharreko puntu argitzat agertu da.

Ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia eta kontsumoa

Auzoa zainduta egotea funtsezkotzat jo da, bereziki guneei berdeei, erreka txikiari, irisgarritasunari, argiteriari eta kaleko zuloei dagokienez. Ferialaren egoera bereziki kezkarria da: haizearekin kristalak erortzen dira eta eraikinak narriadura handia dauka. Eraikin hau berri eta haren altuera aprobetxatuz solairu berri bat egitea proposatu da.

Parkean komun publikoak ez daude eta horrek arazo larriak sortzen ditu, batez ere jai garaian, jendeak edonon pixa egiten duelako eta inguruak zikintzen direlako. Gainera, zonalde estaliak ez daude eta horrek deseroso bihurtzen du egonaldia, eguzki edo euriaren arabera. Parkea dinamizatzeko musika aparatua jartzeko proposamena ere atera zen.

Garbitasuna indartu beharra dago, batez ere aparkaleku atzealdeko guneeetan (zona 6). Auzoan ez dago supermerkatu handirik, eta horrek oinarritzko erosketak egiteko zailtasunak eragiten ditu. Hutsik dauden lokal publiko batzuk ere badaude, erabilera berrietarako baliagarriak izan daitezkeenak (adibidez, Canal 28 zegoen tokian).

Parkeko iturria ez da erabilgarria, eta bertatik edatea ezinezkoa da. Horregatik, proposatu da iturri bikoitza jartzea: beheko grifo bat txakurrentzat eta goikoa pertsonentzat, txakurrak sarritan grifoa miazkatzen dutelako eta horrek deserosotasuna sortzen duelako. Azkenik, zona 6ko argiteria eskasa dela eta hobetzeko beharra nabarmendu da.

5.4. Tailer irekiak

Lehenengo dinamikan, parte-hartzaileek bloke bakoitzeko proposamenak baloratu zituzten pegatinak erabiliz, lehentasunak adierazteko: pegatina berdea (●) lehentasun handia adierazteko eta gorria (●) lehentasun txikiagoa adierazteko.

■ **Ingurumena, paisaia, historia eta kultura:** Parke eta berdeguneen gabezia izan zen gai nagusia (3 puntu, ●). Parkea zatituta dago errepidearen ondorioz, eta haur txikientzako jolasgune egokiak ez daude. Zuhaitz gaixoak moztu izanak itzala galduarazi duela ere badiote.

Memoria historikoari dagokionez, jarduerarik eza aipatu zen (0 puntu, ●): badaude argazki zaharrak, baina erabilerarik gabe. Auzoko historia balioan jartzeko gogoia agertu zen, eta herritarren omenezko zuhaitza aipatu zen ekimen positibo gisa.

■ **Etxebizitza eta hirigintza:** Irisgarritasuna kezka iturri izan zen (2 puntu, ●): parkean sartzeko zailtasunak dituzte mugikortasun urriko pertsonak, eta sarbideak hobetu beharra dago. Segurtasuna eta argiztapena ere garrantzitsuak izan ziren (4 puntu, ●): aparkalekuetako argiteria eskasa eta ikuspen falta azpimarratu ziren.

■ **Proiektu urbanistikoak eta garapenaren inguruko gaiak:** Eraikin abandonatuak eta haien mantenu eza aipatu ziren (2 puntu, ●), baita trafikoaren antolaketa eta zarata industrialak ere. Errepidea peatonalizatzeko proposamena jaso zuen (1 puntu, ●), hiri-antolaketan oreka handiagoa bilatzeko asmoz.

■ **Biztanleria, parte-hartzea eta bizikidetzak:** Udalarekiko harremanak lehentasun altuko gai izan ziren (4 puntu, ●): "utzikeria instituzionala" aipatu zen, eta parte-hartze herritarraren bideak sinplifikatzeko eskaera egin zen. Dinamizazio soziala eta kohesioa (3 puntu, ●): auzoaren identitatea indartzeko eta kultura arteko integrazioa bultzatzeko neurriak proposatu ziren. Espazio komunak eta parte-hartzea: lokalak ez dira guztientzat ireki sentitzen; urte osoan jarduera gehiago proposatu ziren baina ez zuen lehentasunik jaso (0 puntu)

■ **Ekipamenduak eta zerbitzuak:** Komun publikoen gabezia izan zen aipamen nagusia (5 puntu, ●). Iturri berria proposatu zen (pertsonek eta txakurrentzat bikoitza).

Parkeko azpiegituren gabezia (0 puntu): ez dago estalkirik eguraldi txarrerako, ordea ez zuen lehentasunik jaso, bestelako lokal publiko itxien erabileraren eskaera ere egiten baitzen.

Garbiketa eta mantentzea (2 puntu, ●): atzealdeko aparkalekua eta eremu baztertuak hobetu behar dira.

Eraikin ferrialaren egoera txarra ere aipatu zen (1 puntu, ●), erabilera berriak proposatuz..

- **Ekonomia eta kontsumoa:** Gai bakarra puntu gorriarekin (1 puntu, ●): ez da zehaztu, baina auzoaren dinamika ekonomiko eskasa eta merkataritza falta nabarmendu ziren.

2. dinamikan, plenarioan, eztabaida eta hausnarketa kolektiboak egin ziren. Hona hemen mahaiez mahai ateratako ondorioak.

MAHAIA 1:	Parte-hartzaileek auzoko mantentze-lanetan eta garbiketan hobekuntza beharrezkoa dela adierazi zuten. Ordea, aparkalekuen erabilera izan zen eztabaidagai nagusia: karabanak kontrolik gabe kokatzen direla eta argiteria falta dela aipatu zen. Espazio batzuk berdegune bihurtzea proposatu zen ere, baina ez aparkaleku guztien kaltetan. Azkenik, Udalaren proiektu faltak eta komunikazio ezak frustrazioa sortzen duela azpimarratu zuten
MAHAIA 2:	Ingurumenaren eta segurtasunaren gainean jardun ziren beren hitzartzean: zuhaitzen inausketa, argiztapena eta parkearen mantentzeaz, besteak beste. Proiektu urbanistiko zaharren geldotasuna kritikatu zen, eta azkenik, Ertzaintzaren eta udaltzainen presentzia eskasa aipatu zen, batez ere asteburuetan gertatzen diren lasterketak eta zaratak direla eta
MAHAIA 3:	Azpiegitura sozial eta komertzialen gabezia izan zen ardatza mahai honen kasuan: komun publikoak, okindegia edota taberna baten beharraz jardun ziren, baita lokal egokien beharraz komunitatearen jarduerarako. Parte-hartzaileek auzoko masa kritiko txikia aipatu zuten negozioak sostengatzeko, baina hala ere auzoaren bizitasuna berreskuratzeko premia nabarmendu zuten.

Hausnarketak eta erronkak

- Oinarrizko azpiegiturak eta mantenua:** Komunak, argiteria eta garbiketa dira premiazko gaiak. Parkeak erabilera sozial handiagoa behar du, kultur eta komunitate ekintzetarako prestatuz.
- Parte-hartzea eta bizikidetza berrasmateza:** Auzoko elkarte eta kolektiboen arteko harremanak sustatu behar dira. Espazio partekatutako berrantolatu eta guztientzat irekia izan dadin bermatu.
- Udalarekiko harremana eta konfiantza:** Parte-hartzaileek instituzioen aldetiko arreta eta presentzia handiagoa eskatu zuten, baita erantzun eta jarraipen argiak ere.
- Segurtasuna eta irisgarritasuna:** Argiteria, ikusgarritasuna eta zaintza hobetu behar dira. Autoen lasterketek eta gaueko zaratek segurtasun falta eragiten dute.

5.5. Ibilbide gidatuak (Deribak)

Deribarako diseinatutako ruta honakoa da:



1

San Juan kalea, trenbideko tunelaren aurretik

1.- Estoldaren egoera eskasa adierazi dute bizilagunek. Kono urdin bat jarri omen dute inork min har ez dezan, baina konpontzeko premia dutela adierazi dute.



2.- San Juan kalean bertan dagoen txakur-parkean dagoen paretaren egoeraz kaskarra adierazi dute. Euriteak direla eta paretaren egoera okertu dela diote, erortzeko arriskua edukitzeraino.



3.- Hiru Aldeta atzeko parkera iritsi aurreko bidean, anbulategi inguruan, karreterako zuloak adierazten dizkigute. Leku honetan bertan ere argiztapena urria dela adierazten dute, farolak bai baina zuhaitzen gainetik gelditu baitira.



2 eta 3 Parkea

(1/2)

1.- Parkearen inguruan zabal ibili dira hitz egiten. Parkea bitan banatuta dagoela diote eta bateratzeko beharra esaten dute. Iruzkina ezberdinen artean iturriaren egoera ere aipatzen dute, inguruak busti egiten dituela azpimarratuz.




2.- Parkera iristeko zebrabidean gurpildun-aulkiek igo ezin dezaketen espaloi zati bat dago, irudian azaltzen den bezala.



3.- Goiko irudi hori bera baliatuz, adierazten dute gurpildun-aulkientzako aparkalekuak ez dituela irisgarritasun neurriak betetzen.

4.- Parkean sartu ahala, atzean dagoen belardian zentratzen gara. Belardia inguratzen duen hesia puskatua dagoela diote, bandalismoak eraginda.



2 eta 3 Parkea

(2/2)

5.- Belazearen beste aldean ere, poligonora doan bideaz jardun gara. Euria egiten duenetan, bidea eta ate gorriaren artean dagoen zatia oso irristakorra egoten baita, bizilagunentzat “oso arriskutsua”. Zati hori pabimentatzeko eskaera egiten dute.



6.- Parkearen eta Elosegiko parkea biltzen duen harresiaren azpian arropa zintzilikatzeko sokak daude instalatuta. Bertako bizilagunek Elosegiko aldetik adar eta harriak erortzen zaizkiela diote, haurrak jolasean dabiltzala.

7.- Puntu honetan bertan ere, harresiaren egoeraz jardun dira. Egoera kaskarra duela diote, eta hainbat puntutan harriak erortzeko arriskua dagoela azpimarratzen.

1.- Lehenik, parketik BOX-erako bideak duen argiztapen urriaz jardun dira. Puntu beltza dela diote, eta “trapitxeoan ibiltzeko leku aparta”. Argiztapen eta zaintza gehiago eskatzen dute bertan.



2.- Bertan terrenoa eta etxebizitza duen bizilagun batek hartu du gero hitza, eta bere etxe-atari ondoko ur-kanalaz aritu da. Bertan zikinkeria asko batzen zaiola dio, eta bere kabuz egin behar izaten duela garbiketa eta mantenua. Irudian ikusten den kanala da:



3.- Ur-kanalaren altura berean, karreteraren egoera seinalatzen du ere bizilagunak. Kamioi eta kotxeek zartadak egin eta horrela asfaltatu dutela dio, “inongo mimorik gabe”:



5 Karabanentzako aparkalekua

1.- Karabanen aparkalekuko egoeraz salatzen dute bizilagunek. Zaintza eta garbitasun eskasa dagoela diote. Ingurua txukuntzeko beharra adierazten dute eta espazioaren kontrol handiagoa egitea.



2.- Leku horretan bertan karabanentzako garbigunea dagoela diote eta leku ona dela diote, erabiltzen dela:

3.- Eremu horretan bertan ere, estolderiaren arazoa aipatzen da. Euriteak direnean—irudian ikusten den lur arrastoak garbi erakusten du— ura metatzen dela diote, putzuak egiteraino. Bertan, estolderia hobetu beharko litzatekeela eskatzen dute.



6 Feriala

1.- Deribako azken puntura iritsita, Feriala eta pareko eraikuntza utzien inguruan jardun gara. Ferialaren egoera kaskarra azpimarratu dute, batez ere eroritako kristal hautsien inguruan jardun dira. Segurtasun irizpideak ez dituela betetzen eta horren bigilantzia eta zaintza egiteko eskatzen da.



2.- Parean dauden eraikuntzetan ordea, jabego pribatuak bai, baina udalak esku-hartu beharko lukeela eskatzen dute. Egoera kaskarra da eta bertan haurrak eta gazteak sartzen direla diote.

6. IRAKURKETA SINTETIKOA ETA ONDORIO NAGUSIAK

AuzoEkin prozesuak agerian utzi du San Estebaneko errealitatea anitza eta konplexua dela, aurrera begirako estrategia eraginkorrak ezartzeko potentziala ere handia izanik. Egin den azterketa datu kuantitatiboetan eta bizilagunen parte-hartzetik eratorritako ekarpen kualitatiboetan oinarritu da, errealitatearen irudi multidimentsionala jasotzeko aukera eskainiz.

Batetik, iturri estatistiko ofizialetatik eta biztanleriari zuzenean egindako inkestetatik ateratako datuek eremuaren gaur egungo erretratua erakustea ahalbidetu dute, hainbat aldagaien ezaugarritzea osatuz: hala nola, biztanleriarena, ekonomia eta enpleguarena, etxebizitzarena, ingurumena, hiri-espazioa eta garraioarena, bizikidetzarena, eta gobernantza eta zerbitzuena. Horri esker, eremuko joera nagusiak eta erronka nagusiak zehaztasunez identifikatu dira. Bestetik, elkarrizketa sakonak, focus taldeak, tailer irekiak eta ibilaldi gidatuak (deribak) bezalako tresnek bizilagunen ahotsa eta esperientzia zuzena txertatu dituzte diagnosi honen txostenean. Herritarren ikuspegi horrek zenbait datu hotzekin kontrastea ekarri du, eta askotan errealitatea modu biziago eta zehatzago batean ulertzea ahalbidetu du.

San Estebanek biztanleriaren hazkunde orokorra bizi izan du azken hamarkadan. Alde horretatik, bizilagunen zati oso nabarmena etorri berria da (gehienez 5 urte daramatza bertan bizitzen). Auzoa, kanpoko jatorriko bizilagunentzako erakarpen ingurua da, hauen pisu demografikoa oso garrantzitsua izanik. Fenomeno honek aldi berean, piramide demografikoaren gaztetzea ekarri du.

Etxebizitzen eskuragarritasuna egon daiteke kanpotik etorri berrien oparotasun fenomeno honen atzean. Alokairuan bizi direnen kopuruak eta emantzipaturik bizi diren gazteen kopuruak ere indartu egiten dute hipotesi hau.

Aipatutako biztanleria egituraren ondorioz, biztanleria aktiboa nagusi da San Estebanen. Ordea, langabezia maila nahiko altua duen eremua dugu. Horren atzean egon daiteke, kanpoko jatorriko pertsonen kualifikazio eta lan-merkatuaren eskakizunen arteko nolabaiteko desoreka egotea. Honekin lotuta, azpimarratzekoa da bizikidetzaren unitateen diru-sarreraren apaltasuna, landun gehienak zerbitzuetan (soldata murrizagoak) parte-hartzearekin lotuta ere egon daitekeena. Dena den, honek ez du islatzen hilabete bukaerara iristeko zailtasunen nabarmentze bat, sarrerak murrizak izan arren, gastuak ere ez baitira neurritz kanpokoak.

Eremura etorri berrien presentzia erlatiboki nabaria izanik errazago ulertu daiteke, biztanleriaren tokiarekiko atxikimendu maila zertxobait mugatuagoa izatea eta horrekin batera, auzogintza ere apalduta egotea. Alde horretatik, gehiengoak ez du aktiboki parte-hartzen auzoko dinamizazio ekimen eta jardueretan.

Orokorrean, bizilagunek, erdibideko iritzia azaltzen dute bere bizi-eremuarekiko. Eremuko giro-soziala, bertako ingurune eta berdeguneak, garraioa eta mugikortasuna, oinarritzko zerbitzu eta produktuak eskuratzeko gaitasuna, Udal teknikarien lana edota izapidetzak egiteko aukerak ondo baloratzen dira. Ostera, hiri-espazioaren, auzoko ekipamendu kolektiboaren edota Udalarekiko komunikazioaren egoerarekiko kritikotasuna gailentzen da.

San Estebaneko diagnostikoan, espazio kualitatiboetan jasotako ekarpenek osagai emozional eta sozial indartsua ekarri dute datu teknikoen irakurketara. Bizilagunen ahotsak azpimarratu du auzoaren lasaitasuna, hurbiltasuna eta identitate kolektiboa direla zaindu beharreko aktibo nagusiak, eta aldi berean, utzikeria instituzionalaren pertzepzioak eta parte-hartze zailtasun burokratikoek auzogintza ahultzen dutela. Bizilagunek oinarritzko azpiegituren gabezia aipatu dute —komun publikoak, argiteria, garbiketa, iturriak eta estalkiak—, baina auzoko mantenua eta garbitasuna baino gehiago, hauek auzoaren duintasun sinbolikoarekin lotu dituzte.

Horrez gain, Ferialaren egoera auzoaren metafora bilakatu da: potentzial handiko espazioa, baina hondatze fisikoak etorkizunaren inguruko ziurgabetasuna irudikatzen dute. Horrek, udalaren eta bizilagunen arteko harreman zuzenago eta gardenago baten premia azpimarratu du.

Auzoaren aniztasun kulturala eta belaunaldien arteko oreka ere funtsezko erronka gisa ageri da ere auzo honetan. Kanpoko jatorriko bizilagunen integrazioa ez da gatazkatsua, baina ezta benetan integratua sentitzen ere. Kohesioa lantzeko ekintza sinboliko eta kolektiboak behar dituzte, eta behin baino gehiagotan aipatu dituzten “tresnak” ere: jaialdiak, oroimen historikoaren lanketak, edo auzoko espazio ireki partekatuen aktibazioa.

Azkenik, irisgarritasunaren eta segurtasunaren inguruko kezkak (argiztapen eskasa, trafiko handia, ikuspen arazoak) ez dira soilik azpiegitura kontuak: bizigarritasunaren eta auzoaren pertzepzio emozionalaren adierazle ere badira. Horregatik, etorkizuneko plan estrategikoek azpiegitura fisikoen eta konfiantza sozialaren arteko zubi lana egin behar dute halaberharrez.

Hortaz, agerikoa da San Estebanek hainbat erronka erakusten dituela, berezkoak zaizkion indarguneak baliatuz aurrera eraman beharko dituenak eta ondoren sintesi gisa azaltzen direnak, aurrera begirako auzo-planen eta garapen estrategikoaren abiapuntu gisa baliatzeko:

- Auzoen ezaugarri soziodemografikoak: biztanleriaren gaztetze progresiboa eta kanpoko jatorriko bizilagunen barneratzea elementu erabakigarriak dira. Errealitate horrek eragina du lan-merkatua, etxebizitza, edota auzogintza bezalako arloetan, zeinetan eraldaketa sakonak ematen ari diren.
- Hiri-espazioaren eta ekipamenduen egoera: auzoko ekipamenduen, utzitako eraikin eta espazioen, eta orokorrean, hiri-espazioa osatzen duten elementuen (irisgarritasuna, parkeak, berdeguneak...) zaintza eta mantenua indartzeko beharrak lehentasunezko erronka gisa ageri dira.
- Komunitatearen kohesioa eta auzogintza: auzoko aniztasuna aprobetxatzea erronka nabarmena da, kulturartekotasuna erreminta gisa baliatuz auzoko atxikimendua indartu eta barne kohesioa lantzeko. Alde horretatik, belaunaldi berriak eta bereziki, jatorri desberdinetako bizilagunak auzogintzara erakartzea ezinbesteko puntu bilakatzen da, elkarbizitza aberats eta inklusiboa garatzeko helburuarekin.
- Ko-gobernantza eta harreman instituzionalak: bizilagunek administrazioarekiko harremanen eraginkortasun falta antzematen dute. Alde horretatik, Udalaren eta auzoaren arteko komunikazio iraunkor eta egituratuago bat ahalbidetzea ezinbesteko erronka da, AuzoEkin estrategia amankomun eta planifikatu bat garatzeko helburu horretarako baliatuz.

Amaitzeko, AuzoEkin-ek erakutsi du tokiko garapen parte-hartzaileak ahalmen handia duela eremuaren premiei modu integralean heltzeko. Alde horretatik, talde eragileen sorrera eta oro har, burututako azterlanaren baitan aktibatutako dinamikak ezinbestean baliatu eta elikatu beharreko ardagaiak dira. Erronka nagusiak identifikatuta, hurrengo fasean lehentasun estrategikoak zehaztea eta eremurako plan errealista gauzatzea izango da funtsezko urratsa, herritarren eta Udalaren arteko lankidetzaz sendoak garatuz.

7. GAKO ETA LEHENTASUN NAGUSIAK

AuzoEkin prozesuak identifikatutako erronkei aurre egiteko eta indarguneak modu eraginkorrean baliatzeko, ondorengo gako estrategikoak eta lehentasun nagusiak finkatu dituzte bizilagunak oro har:

1. Oinarrizko zerbitzuak eta azpiegitura bermatzea

- a. Landa eremuetan, ura, saneamendua, bideen egoera eta garraio publikoa dira premia nagusiak.
- b. Auzo urbanoetan, irisgarritasun hobe, mugikortasun jasangarria eta espazio publikoen egokitzapena beharrezkoak dira.
- c. Azpiegitura hauek bizitza duin eta kalitatezkoa bermatzeko ezinbesteko baldintza dira.

2. Komunitatea indartzea eta auzogintza berritzea

- a. Auzo elkarten eta herritarren sareen rola aitortu eta indartu, belaunaldi berrien parte-hartzea bultzatuz.
- b. Kulturartekotasuna aukera gisa lantzea, auzoetako aniztasuna aberastasun bilakatuz.
- c. Elkarbizitzarako eta jarduera kolektiboetarako espazio fisikoak sortzea edo berreskuratzea.

3. Gobernantza parte-hartzailea sendotzea

- a. Udalaren eta auzoen arteko komunikazio eta interlokuzio kanal iraunkorrak sortu eta egituratzea.
- b. Kexei eta proposamenei erantzun eraginkorra ematea, herritarren konfiantza berreskuratzeke.
- c. Auzoetako talde eragileekin batera plangintza eta jarraipena egitea, erabakietan herritarren ahotsa txertatuz.

4. Indarguneak baliatzea eta aukerak aktibatzea

- a. Ingurune naturala eta paisajistikoa zaindu eta aktibatu, aisialdirako, turismo iraunkorrerako eta komunitatearen osasunerako.
- b. Auzoen historia eta memoria kolektiboa balioan jarri, nortasun eta kohesio faktore gisa.
- c. Ekonomia tokikoaren garapena bultzatu: komertzio txikia, tokiko ekoizpenak eta autoenplegu ekimen berriak.

Lau atal hauez gain, badira bestelako lehentasun orokorrak ere:

- Bizitza duinerako baldintza minimoak bermatzea auzo guztietan, bereziki zerbitzu eta azpiegituretan, eta honekin batera, zahartzearen ondoriozko premiei aurre egitea (osasun arreta, mendekotasunaren kudeaketa, irisgarritasuna).
- Belaunaldi berriei aukerak ematea, auzoetan bizi eta parte hartzeko: gazteen emantzipazioa eta auzoan bertan bizitzeko aukerak sustatzea, etxebizitza eskuragarriak eta gazteentzako baliabideak lehenetsiz.
- Udalaren eta auzoen arteko elkarlan iraunkorra egituratzea, AuzoEkin prozesua tresna eraginkor bihurtuz.

Honenbestez, AuzoEkin diagnosiaren prozesua Tolosako auzoen argazki sakon eta kolektiboa eskaini du: datuetan eta bizilagunen ahotsetan oinarritutako diagnostikoa, errealitatearen aniztasuna eta konplexutasuna agerian utziz. Bide horretan, argi geratu da erronka nagusiei aurre egiteko ezinbestekoa dela elkarlan partekatua, eta herritarren jakintza eta konpromisoa Udalaren plangintzan eta erabakietan txertatzea.

Memoria honek ondorioztatzen du auzoek indargune sendoak dituztela —ingurune naturala, historia eta komunitate-dinamika— eta horiek aktibatuz aukera handiak sortzen direla kohesio soziala, tokiko garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko. Aldi berean, lehentasunak zehaztu dira: oinarritzko zerbitzuak bermatzea, biztanleriaren erronkei erantzutea, auzogintza berritzea eta gobernantza parte-hartzailea sendotzea.

Hemendik aurrera, AuzoEkin ez da diagnostiko hutsa izango, ekintza-plan errealista eta partekatuen abiapuntua baizik. Prozesu hau aukera paregabea da Tolosako auzoak etorkizun jasangarri, bidezko eta inklusibo baterantz gidatzeko, betiere herritarren eta erakundeen arteko konfiantza, elkarlana eta ilusioa oinarri hartuta.

8. GLOSARIO LABURRA

1. **Pisu erlatiboa:** magnitude jakin baten garrantzia dagokion erreferentziazko markoarekin alderatuta edo hark ezartzen duen testuinguruaren baitan ulertuta.
2. **Biztanleria piramidea:** une jakin batean eremu zehatz batetako biztanleriaren adinaren arabera banaketa irudikatzeko islapen grafikoa, irudikapenaren oinarrian adin talde gazteenak kokatuz eta goialdean, berriz, adin talde nagusienak.
3. **Bizikidetza unitatea:** etxebizitza berean bizi diren pertsonen batura, beraien arteko harreman edozein izanda ere.
4. **Etxebizitza huts potentziala:** bertan erroldatutako pertsonarik ez duen etxebizitza. Hau da, bertan erroldatuta ez dagoen pertsonaren bat bizi daiteke etxebizitza horretan.
5. **Emantzipazio tasa:** 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean bere kabuz bizi direnen proportzioa.
6. **Iraupen luzeko langabezia:** gutxienez azken 12 hilabeteetan era aktiboan lan bila aritu arren langabe dirauten pertsonen kolektiboari dagokion langabezia.
7. **Kontziliazio neurriak:** lana eta bizitzari lotutako gainontzeko zaintza funtzioak uztartu eta bateragarri egiteko eskuragarri egon daitezkeen aukerak edo tresna-sortak.
8. **Ongizate emozionala:** norbanakoaren harmonia eta ondo izate aldarte orokorrari dagokio. Bizitzako ohiko presio eta egoerei era eraginkor eta orekatuan aurre egiteko gaitasunari.
9. **Eremu- edo auzo-atxikimendua:** norberaren bizitokiarekiko eta hura osatzen duen komunitatearekiko kide izate sentimendua.
10. **Oinarrizko zerbitzuak:** pertsonen eguneroko bizimodua ahalbidetzeko ezinbesteko baliabide eta aukerak, gutxieneko bizi kalitate estandarrak bermatzeko funtsezkoak direnak.